



Bilbon, 2020ko apirilaren 3an, Bizkaiko SOS Arrazakeriak honako informazio hau helarazi nahi dio iritzi publikoari:

Bizkaiko SOS Arrazakeriak azken egunetan jasotako hainbat salaketen arabera, Ertzaintzak geldialdi arrazistak, gehiegikeriak eta erasoak egiten jarraitzen du. Horren erakusgarri da Bilboko aterpetxe batean gazte magrebiar bati egindako eraso bortitzak, hainbat lekukok salatu eta berretsi dutenez.

Joan den martxoaren 30eko goizaldean, gaztea kalean atxilotu eta jipoitu egin zuten Ertzaineak. Ondoren, aterpetxera eraman eta bertan berriro indarkeria handiz eraso egin zioten. Mutila ospitalera eraman behar izan zuten, medikuaren txostenak dioen bezala, polikontusioak, ezkerreko eskumuturrean haustura bat eta hainbat zauri zituelako.

Hainbat kontu agerian utzi eta publikoki salatu nahi ditugu:

- Poliziaren gehiegikeriak eta erasoek oinarri arrazista argia dute, eta hau ezin da marko horretatik kanpo ulertu, justifikaezinak dira. Badakigu poliziak gaztea kalean aurkitu zuenean konfinamendua urratzen ari zela, baina hori ez da horrenbesteko bortizkeriaz erasotzeko arrazoia. Tratu berdintsua eskatzen dugu herritar guztientzat.
- Eraso jasan duen gaztea gizarte bazterketa egoera larrian dagoen pertsona bat da. Kale gorrian dago, ez du etxerik ezta familia-sare lagungarririk ere, eta horrek zaugarritasun handiko egoeran jartzen du.
- Beste behin ere, arrazakeria instituzionala zuriak ez diren pertsonak kontrolatzeko, diskriminatzeko eta erasotzeko tresna dela agerian geratzen da. Segurtasun indarrek indarkeria gupidagabearekin kriminalizatzen eta jazartzen dituzte pertsona arrazializatuak.
- Ertzaintzaren barruan kontrola bermatzeko barne-mekanismoak aktibatzen jarraitzen eta gehiegikeriak ikertzeko eskaera egiten dugu, poliziaren zigorgabetasunarekin amaitzeko.
- Bizkaiko SOS Arrazakeriak eraso polizial arrazista horiek salatzen jarraituko du, nahiz eta mehatxu eta errepresio polizialak jasaten egon joan den igandeko salaketaren ondoren. Horrez gain, komunikabide batzuek errepresio honi bermea ematen diote, albiste faltsuak, nahasiak eta "albistearekin" zerikusirik ez duten pertsonen argazkiak argitaratzen ari baitira, eta gorrotoaren diskursoa sustatu baino ez dute egiten.

**NAHIKO DA! POLIZIEN ERASO ARRAZISTAK, KOMUNIKABIDE KONPLIZEAK ETA
ERREPRESIO POLIZIALAK GELDITU!**

SOS Racismo Bizkaia – Bizkaiko SOS Arrazakeria



En Bilbao a 3 de abril de 2020, desde SOS Racismo Bizkaia - Bizkaiko SOS Arrazakeria, queremos hacer llegar a la opinión pública la siguiente información.

Según varias denuncias recogidas por SOS Racismo Bizkaia en los últimos días, la Ertzaintza sigue realizando paradas racistas, abusos y agresiones. Una muestra de ello es la brutal agresión propinada a un joven magrebí, acogido en uno de los albergues de Bilbao, según él mismo denuncia y ratifican varios testigos.

La madrugada del pasado 30 de marzo, este joven fue detenido en la calle donde le dieron una paliza, después lo llevaron de vuelta al albergue donde volvieron a agredirle brutalmente. El chico tuvo que ser trasladado al hospital por haber sufrido, como dicta el informe médico, policontusiones, tener una fractura en la muñeca izquierda y varias heridas.

Queremos poner de manifiesto y denunciar públicamente varias cuestiones:

- El abuso y las agresiones policiales tienen fondo racista claro y no se pueden entender fuera de este marco. Sabemos que, cuando la policía lo encuentra en la calle, el joven está incumpliendo el confinamiento, pero esto no es motivo para la brutal agresión. Exigimos igualdad de trato para toda la ciudadanía.
- El joven agredido, es una persona que se encuentra en una situación de exclusión social grave. Está en situación de calle, no dispone de hogar ni de una red familiar de apoyo. Esto lo coloca en una situación de mucha vulnerabilidad.
- Una vez más se evidencia el racismo institucional, como instrumento para controlar, discriminar y agredir a las personas no-blancas. Los cuerpos policiales criminalizan y persiguen con una violencia implacable a las personas racializadas.
- Exigimos que se activen mecanismos internos de control del trabajo policial y se investiguen los abusos para frenar la impunidad policial.
- SOS Racismo Bizkaia seguirá denunciando estas agresiones policiales racistas, pese a las multas, amenazas y la represión policial que nos consta está habiendo tras la denuncia del pasado domingo. Ésta represión es además avalada por algunos medios de comunicación, que están publicando noticias falsas, confusas, fotografías de personas que nada tiene que ver con la "noticia" y no hacen sino fomentar el discurso del odio.

¡BASTA YA DE AGRESIONES POLICIALES RACISTAS, DE MEDIOS DE COMUNICACIÓN CÓMPlices Y DE REPRESIÓN POLICIAL!

SOS Racismo Bizkaia – Bizkaiko SOS Arrazakeria